

GURE IRAKURGELA

ASKATASUN ALDARRIA

Manu Lopez Gaseni


Xabier P. Docampo galegoa idazle bateranoa eta oso saritua ez ezik, oso maitatua ere bada, Galizian zein Galiziatik kanpo. Euskaratuak dituen obren artean, azpimarratzekoa da "Gauz ate joka datozenean", Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala eskuratutakoa 1995ean. Idazten dituen obretako inspirazio iturri nagusia ahozko tradizioa da, galetan, eta batez ere estiloan (irakurri ahala, ia entzuten

da idazlearen ahotsaren kadentzia liluragarria), esaldiak ahozkotasanaren beharretara egituratzen dituelarik.

"Balerioren erabakia" da euskaraz jaso dugun haren azken emaitza, lehen irakurleei zuzendutako testu labur bat. Bere laburrean, ordea, bizitzeari buruzko ikasgai bikaina eskaintzen du: Balerio zaharra ustekabeko etenak hasi da tartekatzen bere egunerokotasun aspergarrian: ogia egiteko lehengaiaren bila azokara egiten ohi zituen

bisitaldietan, bat-batean egun batean astoa erosi zuen, beste batean eskusoinua... harik eta bere ohiko bizimodua errotik aldatu zuen arte. Jende gehienak ibiltzen dituen bide jorratuegietatik aldendu, eta zidor eta xenda baztertuetatik ibiltzen hasi zen, benetan gustuko zituen gauzak eginez, eta tokian tokiko zoriak eskainitakotik biziz.

Balerioren jokabidearen atzean askatasun aldarrria dago, alde batetik, lan egiteko bizitzearen gainetik bizitzeko lan egitea hobesten



Liburua:

"Balerioren erabakia"

Egilea: Xabier P. Docampo.

Itzultzailea:

Rosetta Itzulpen Zerbitzua.

Argitaletxea:

Erein, 2005.

duelako, eta, bestetik, "lan egite" hori zeregin artistikoekin lotzen duelako (kantatzea, kontatzea), gaur egun ahaztuxe dugun artistaren izaera bohemioren bidetik. Eta apustua ondo ateratzen zaio, umeentzako ipuin bateko amaiera zoriontsu gisa ez ezik, ametsak betetze hutsa apustua irabaztea delako ere.

Ipuin biribila Xosé Cobasen ilustrazio ederrez lagundua, umeek presarik gabe irakurtzeko zein helduen ahotik entzuna izateko.